



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Gezurra ari du: iruzurtien istorioekin katigatuta

GEZURRA ETA EGIA-OSTEA

Egia-ostea 2016an sortutako neologismo bat da. Kultura politikoaz mintzatuz, egoera berezi bat da, gertakari objektiboen gainetik emozioak eta sinesmen pertsonalak lehenesten dituen iritzi publikoa moldatzeko garaian. Terminoren “ospe” gorena azken urteotan gertatu da, Donald Trump Estatu Batuetako presidentearen arrakastaz, Brexitarren aldeko kanpainaz edota ultraeskuin europarraren gorakadaz geroztik, besteak beste; fenomeno hauen adierazgarri baita espektatiba arrazionalari alde emozionala gailendu izana.

Agustin Arrieta Urtizberea filosofo eta idazleak egia-ostea gezurra baino arriskutsuagoa dela aipatzen du. «Hainbat fe-

Bata zinema-aretoetan, «Marco» filma, bestea MAX plataforman, «Une Amie Dévouée» telesaila; patuaren eragina akaso, edo kasualitatea besterik ez, baina bi izenburu horiek aldi berean ikusgai egotea bitxia iruditut zait. Estreinaldi horien aitzakia baliatu dut iruzurti, gezurti edota usurpatzaileei buruzko telesail gomen-dioak partekatze. Hainbeste katigatzen gaituzten iruzurtien istorioen barnean murgilduko gara.

nomeno daude egia-ostearen inguruan. Gezurra, ezjakintasuna, hitzontzikeria, desinformazioa, *fake news*-ak, populismoa, sare sozialak, propaganda, negazionismoa... Engainu masiboaren ideia sortzen duten fe-

nomeno heterogeneoak dira. Baina egia-ostearen ezaugarri nagusia da ez duela begirunerik egiarekin, eta gutxietsi egiten duela. Hala ere, ezaugarri hori ez da gezurrarekin lotu behar. Gezurra eta egiarekiko

mespretxua engainu mota desberdinak dira. Gezurtiak badaki zein den egia; egiaren partida jokatzeko du, baina nahita ezkutatzeko du. Hala ere, egia-ostea harago doa. Alde batera uzten da egiaren jokoa, ez ulertuarena egiten da: egia ez da kontuan hartzen, egiak ez du axolarik», aipatzen du Arrietak.


Moriartitarren “Marco” filma, esaterako, egia-osteari buruz mintzatzen da. Egun sare sozialetan aurki dezakegun guztia, birala bihurtzen den desinformazio hori guztia, Marcok berak bere elkarrizketetan praktikan jartzen zuen zerbait izan zen. Zerbait gustatzen ez zitzaionean, kazetaria nahasten zuen eta errealtatea makillatzen zuen datu faltsuekin, iritziarekin.

Azken urteotan kontzeptu horretaz baliatu dira fikziozko narrazio ugari elikatze, baina jarraian aipatuko ditudan adibideek erakusten duten moduan, gehienak benetako kasuak dituzte oinarrian; fikzioaren eta ez-fikzioaren arteko mugaren auzia agerian geratzen da kasu askotan.

Une Amie Dévouée

(MAX)

“Marco” eta “Une Amie Dévouée” telesaila aldi berean ikusgai egotea bitxia iruditut zaidala aipatu dut sarreran, antzeko ezaugarriak partekatzen dituzten proposamenak direlako: benetako kasu bat dute oinarri eta ez behar jakin bateko biktimizez aprobetxatzen den





gezurti edo iruzurgile bat dute protagonista moduan.

Filmean, Enric Marcoren, imajinatzen zaila zen gezur bati eusteko gai izan zen gizonaren, istorioa ikusiko dugu: nazien kontzentrazio-esparru batean preso hartu zutela zioen.

Telesailak, aldiz, Christelle Chris Blandin-en istorioa azaltzen du: 2015eko azaroko Parisko erasoetan -zehazki Bataclan aretoan gertatu zirenak-bere ustezko bikotea, Vincent, zauritu larrien artean zegoela zioen emakumea. Aurrerago, gainera, kontakizunean bera ere eraso horietatik bizirik atera zela gehituko zuen; guztia gezurra zen, asmatu-rikio istorio bat. Gezur sare horren erai-kuntzan, Vincent-en sare sozialak ere sortu zituen, harreman birtualak landu eta biktimen elkarteko kide garrantzitsua izaten amaitu zuen. “Zergatik?” “zertarako?” guztiok buruan bueltaka dauz-kagun galderak dira. Fikzioaren bidez iristen zaigunaren arabera, erantzuna argia da: protagonistak ez du soilik bes-teen errukia bilatzen, bere bi-zitzari zentzua emango dion egitura bat aurkitu nahi du. Komunitate baten kide izatea-

ren nahiaz eta oinazearen er-dian pertsonak balioetsiak izateko beharraz hausnartzen du.

Protagonistaren rola Laure Calamy aktore frantziarrak jo-katzen du. Chris rockaren eta punkaren zale amorratua den paristarra da, eta, itxuraz, lotu-ra emozionalak aurkitzeko arazoak ditu. Protagonista ez da iruzurgile tipiko horietako bat; ez doa (soilik) etekin ekonomi-koaren atzetik, gogobetetze in-timoago baten atzetik baizik, lorpen emozional batekin zeri-kusia duena, talde batean inte-gratuta sentitzearekin eta bere lanagatik aitortua izatearekin lotura zuzenagoa duena. Ca-lamy-k pertsonaia konplexu horrek behar dituen ñabardura guztiak eransten ditu.

The Thief, His Wife and the Canoe

(FILMIN)

“The Thief, His Wife and the Canoe” (Lapurra, emaztea eta kanoa, euskaraz) lau zatitan banatzen den drama bat da, eta John Darwin eta bere emaztearen benetako istorioa azaltzen du; bizitza-aseguru



bat erreklamatzeko helburuz, Darwin-ek bere heriotza simu-latzen du. Emaztearen konpli-zitatearekin egiten duen zer-bait da, baina bi seme-alabek ez dute horren berririk. Bizi-aseguru garrantzitsu bat ko-bratzeko eta familian dituzten finantza-arazoak konpontze-ko, kanoa-istripu batean hil zela sinetsarazteko plan bat asmatu zuten.

Dramaren eta komediaren arteko oreka mantentzea lor-tzen du telesailak, eta egoera-ren zentzugabekeria eta per-tsonaien konplexutasun emozionala agerian geratzen dira. Eddie Marsanek bikain jokutzen du John Darwin ma-nipulatzaile eta etikarik gabe-ko gizonezkoaren rola; bere izaera manipulatzailer eta ego-zentrikoaren testigu bilaka-tzen gaitu. Bere arazoetatik ihes egiteko edozertarako prest dagoen pertsona baten erretratua sinesgarria eta sa-rritan aztoragarria da. Monica Dolan-ek ere lan aparta egiten

du Anneren rolean; senarra-renganako leialtasunaren eta eutsi behar dioten gezurraren pisuaren arteko barne borroka etengabea arituko da.

D’argent et de sang

(FILMIN)

Xavier Giannolik zuzendutako telesail frantziarra da, Fabrice Arfi-ren izen bereko liburuan oinarritua. Drama, thrillerra eta krimena nahasten ditu, eta Frantzian inoiz egon den iru-zur fiskalik handienetako bati buruzkoa da: 2008 eta 2009 bi-tartean bertako hainbat enpre-sek karbonoarekin lotutako BEZaren bidez milioika euroko zerga iruzurra egin zuten. Kli-ma alaketaren aurkako politi-kak haien onurarako baliatuta antolatu zuten iruzurra. Hitz gutxitan azalduta: ordaintzen zuenak kutsatzeko eskubidea zuen. Frantziako hedabideek “Mendeko iruzurra” izena jarri zioten auziari.

Simon Weynachter (Vincent Lindon) da pertsonaia nagusie-tako bat. CO2-aren isurtze-es-kubideen merkatuan hutsune legal bat aurkitu duen finan-tzaria da; hura ustiatzea eta ge-zurrezko enpresa sare bat sor-tzea du helburu. Horri esker, zergak saihestu eta dirutza ira-bazteko aukera izan du hilabe-te gutxitan. Bere gorakada me-teorikoaren eraginez, Parisko elitearekin harremana izaten hasi da; baina erabaki horrek



ustelkeria, engainu eta traizioz beteriko mundu ilun batera bultzatu du.

Serieak aberastasuna lortzeko behar den guztia egiteko prest dauden pertsonen anbizio neurrigabea eta ardura falta agerian uzten ditu. Narrazio zehatza, antzezpen lan bikainak eta tentsioa, suspensea eta kritika soziala trebetasunez orekatzen dituen gidoia dira telesailaren bertute nagusiak.

Ripley

(NETFLIX)

Andrew Scott aktoreak jokatzen du Ripley protagonista-ren rola, eta istorioa 1960ko hamarkadan gertatzen da. Estatu Batuetako gizon aberats batek Tom Ripley kontratatu du, semea Italiatik etxera itzul dadin konbentzitzeko. Hortik aurrera, gezur-sare bat ehuntzen hasten da.

Zinema klasiko beltzaren esentzia arnasten da une oro. Eszena bakoitzean dagoen argiaren eta itzalaren lan ia espresionista bikaina da, hamaurrekoa. Andrew Scott-en lana ere aparta da, pertsonaiaren garapena eta arku dramatikoak, itzelak. Bere begiradek, isiluneek... pantailari iltzatuta

mantendu naute. Kokalekuak duen indarra ere ezin hobeto zukutu dute; Italia narrazioa babesten eta elikatzen duen beste pertsonaia bat balitz bezala ageri da.

Kriminal baten bizitzaren azterketa zehatza landu nahi izan dute, eta horretarako, Zaillianek protagonistaren urrats, portara eta errutina bakoitza behatzen du, ekintza bakar bat alboratu gabe. Xehetasun planoz josia dago telesaila: protagonistak behatzen duen guztia, gertatuko diren ekintzak aurrertzen dituzten objektuak, hirietako arkitekturaren pla-

noak, eta abar. Zentzu horretan, telesailak erritmo geldoa du, bereziki lehen ataletan, baina zuri beltzaren amaraunak zeharo katigatuko zaitu hirugarren ataletik aurrera. Beste garai bateko telesaila dirudi: zoragarria da.

The Dropout

(DISNEY +)

Elizabeth Holmes “Theranos” enpresaren fundatzaile eta zuzendari exekutiboa izan zen. “Theranos” osasun-teknologiaren eta laborategi klinikoaren arloko zerbitzuen enpresa da.

Holmesek medikuntzaren mundua irauliko zuela agindu zuen: orratzak erabili gabe eta odol-lagin txiki batetik abiatuta, laborategiko azterketak egiten zituen diagnostiko-plataforma garatu zuen. Theranos sortu eta urte gutxira, Holmes Silicon Valleyko izar nagusietako bat bihurtu zen, eta konpainiak milaka milioi dolarreko irabaziak izan zituen. 2015ean, ordea, “The Wall Street Journal”-eko kazetari batek, John Carreyrouk, argitara eman zuen “Theranos”-en teknologiak ez zuela

funtzionatzen. Ikerketak agerian utzi zuen konpainiak diagnostiko okerrak ematen zituela eta erabiltzen zuen teknologiak ez zuela agindutakoa betetzen. Holmesi “iruzur masiboa” leporatu zioten, bezeroak eta inbertitzaileak engainatzeagatik.

“The Dropout” kasu horri buruzkoa da. Zortzi atal ditu, eta bakoitzean Holmesen ibilbidearen alderdi desberdin bat aztertzen du, konpainiaren hastapenetatik eskandaluraino. Kasua aztertzeaz gain, Silicon Valley-ko “startup” kultura eta horren barruan sortzen diren iruzurrak nabarmentzen ditu, eta ikusleak errealitatea eta iruzurraren arteko muga zalantzan jartzera gonbidatzen ditu. Amanda Seyfried aktoreak jokatzen du Elizabeth Holmes-en rola, eta egiten duen lana goraiatzeko modukoa da; Emmy Saria irabazi zuen Emakumezko Aktore Onenaren kategorian 2022an.

Gehigarri modura, beste gomendio bat: 2019an “The Inventor: Out for Blood in Silicon Valley” dokumentala ere estreinatu zuten, enpresaren igoera eta jaitsiera erakusten dituen.

